

CAJA LABORAL GESTIÓN SGIIC, S.A.

JOKABIDEAREN BARNE ARAUDIA

2025eko uztaila

CAJA LABORAL
GESTIÓN SGIIC, S.A.





Dokumentuaren Kontrola eta Onarpena

Dokumentu hau ondorengo koadroan jasotzen den moduan onartu da:

Bertsioa	Dokumentua	Arlo Arduraduna	Onarpen-data	organoa
1	Jokabidearen Barne Araudia	Araudia Betearazteko Departamentua	2018ko maiatza	Administrazio Kontseilua
2	Jokabidearen Barne Araudia	Araudia Betearazteko Departamentua	2025ko uztaila	Administrazio Kontseilua



Aurkibidea

1	APLIKAZIO-EREMUA	4
1.1	Aplikazio-eremu objektiboa.....	4
1.2	Aplikazio-eremu subjektiboa	4
1.3	Testuinguru Normatiboa.....	5
2	PRINTZIPIO OROKORRAK	6
3	ERAGIKETA PERTSONALAK	8
3.1	Eragiketa pertsonalen definizioa	8
3.2	Eragiketa pertsonalen komunikazioa	8
3.2.1	Jakinartzeko betebeharra eta baimena	8
3.2.2	Salbuespenak	9
3.3	Eragiketa debekatuak	9
4	MERKATU-ABUSUA	11
4.1	Informazio pribilegiatua	11
4.2	Merkatuaren manipulazioa	12
5	INTERES-GATAZKAK	14
6	LOTUTAKO ERAGIKETAK.....	15
6.1	Pertsona eskudunen eta tresna edo bezeroen arteko lotura	15
6.2	Tipologia	15
6.3	Baimena	16
6.3.1	Baimenari lotutako eragiketak.....	16
6.3.2	Baimenari lotuta ez dauden eragiketak	17
6.3.3	Administrazio Kontseiluaren baimena	17
6.3.4	Jarraipen Organoaren baimena	17
7	GORDAILUZAINAREKIKO BANAKETA-ARAUAK	18
8	JARRAIPEN-ORGANOAK	19
I.	eranskina - LOTURA NABARMENEN ADIERAZPENA.....	20
II.	eranskina - EROSKETA ETA SALMENTEN HILEROKO JAKINARAZPENA.....	23



1 APLIKAZIO-EREMUA

1.1 Aplikazio-eremu objektiboa

Jokabidearen Barne Araudi honen (aurrerantzean, "**JBA**") helburua **CAJA LABORAL GESTIÓN, IKESK, S.A.-ren** (aurrerantzean, "**Entitatea**" edo "**IKESK**") jardueretan bete beharreko jokabide-arau batzuk ezartzea da).

Aurrerago definitzen den bezala, JBA honen aplikazio-eremuan barne hartzen dira 6/2023 Legearen 2. artikuluan adierazitako finantza-tresnak.

Halaber, garrantzitsua da aipatzea JBA horrek arautzen dituela jarraian adierazitako zerbitzuak ("**Zerbitzuak**") ematean sor daitezkeen egoerak):

- a. IKESKaren Inbertsio kolektiboko erakundeen ("**IKE**") kudeaketa-zerbitzu kolektiboa
- b. Zorroen kudeaketa-zerbitzua
- c. Inbertitzeko aholkularitza-zerbitzua

Gai honi lotutako zerbitzuak ematen dira:

- a. Kudeatutako IKEak eta partaideak
- b. Kudeatutako zorroen titularrak
- c. Aholkupeko bezeroak

Aurrerantzean, IKE-etako partaideei, kudeatutako zorroen titularrei eta aholkupeko bezeroei "**Bezeroak**" deituko diegu kolektiboki eta banaka "**Bezeroa**". Era berean, IKE-ei eta kudeatutako zorroei "**tresnak**" deituko diegu kolektiboki eta banaka "**tresna**".

JBAk Entitatearen Administrazio Kontseiluak onartu du eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari (aurrerantzean, "**BMBN**") bidali zaio).

1.2 Aplikazio-eremu subjektiboa

JBA honako eremu hauetan aplikatzen da:

- a) Entitatea
- b) Honako hauek dira pertsona eskudunak:
 - a. Administrazio Kontseiluko eta IKESKako Zuzendaritza Nagusiko kideak.
 - b. IKESKako langileak.
 - c. Beste edozein pertsona fisiko, baldin eta haren zerbitzuak IKESKaren esku eta kontrolpean jartzen badira eta IKESKak ematen duen edozein zerbitzutan parte hartzen badu.
 - d. IKESKarekin funtzioak eskuordetzeko edo hari zerbitzuak emateko kontratu bat sinatu izanagatik, IKESKari zerbitzu bat emateko lotura zuzena daukan beste edozein pertsona fisiko.

Pertsona horiei "**Pertsona eskudun**" deituko diegu banaka eta kolektiboki, berriz, "**Pertsona eskudunak**".



JBAko Jarraipen Organoak (aurrerantzean, "**Jarraipen Organoa**"), JBA-ri lotutako Pertsona eskudunekiko harremana sortuko eta eguneratuta mantenduko du, zeina agintaritza eskudunen esku egongo baiten. Jarraipen Organoaren osaera eta eginkizunak JBA honetako 8. atalean zehazten dira.

Jarraipen Organoak Pertsona eskudunei jakinarazi beharko die harreman horretan sartu edo atera direla. Halaber, Pertsona eskudunek JBA hau ezagutzen dutela adierazi beharko dute dagokion ezagutza-deklarazioa sinatuz.

1.3 Testuinguru Normatiboa

Jarraian, JBA honen edukiaren jarraibideak arautzen eta ezartzen dituzten arau nagusiak adierazten dira:

- 35/2003 Legea, azaroaren 4koa, Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzkoa (aurrerantzean, "**IKEL**").
- 1082/2012 Errege Dekretua, uztailaren 13koa, inbertsio kolektiboko erakundeei buruzko azaroaren 4ko **35/2003 Legea garatzeko Araudia** onartzen duena (aurrerantzean, "**IKEA**").
- 6/2023 Legea, martxoaren 17koa, Balore Merkatuei eta Inbertsio Zerbitzuei buruzkoa ("**BMIZL**").
- 813/2023 Errege Dekretua, azaroaren 8koa, inbertsio-zerbitzuen enpresen eta inbertsio-zerbitzuak ematen dituzten gainerako entitateen araubide juridikoari buruzkoa ("**ISE-en ED**").
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 596/2014 (EB) Araudia, 2014ko apirilaren 16koa, merkatu-abusuari buruzkoa (aurrerantzean, "**596/2014 Araudia**").
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/65/EE Zuzentaraua, 2009ko uztailaren 13koa, balore higigarrien inbertsio kolektiboko erakunde batzuen lege-, araudi- eta administrazio-zehaztapenak koordinatzen dituena (aurrerantzean, "**UCITS Zuzentaraua**")
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/61/EB Zuzentaraua, 2011ko ekainaren 8koa, inbertsio-funts alternatiboen kudeatzaileei buruzkoa (aurrerantzean, "**AIFMD**").
- Komisioaren 231/2013 (EB) Araudi delegatua, 2012ko abenduaren 19koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/61/EB Zuzentaraua osatzen duena salbuespenei, jardueraren baldintza orokorre, gordailuzainei, palanka-efektuari, gardentasunari eta ikuskapenari dagokienez.



2 **PRINTZIPIO OROKORRAK**

IKESKak eta Pertsona eskudunek IKESKaren jardueraren berri ematen duten printzipio hauetara egokitu beharko dute bere jokabidea:

- a) Arduraz eta gardentasunez jardutea, Tresnen eta Bezeroen interesik onenean, interesak norberarenak balira bezala zainduz eta balore-merkatuaren jokabide-arauak kontuan izanik, aplikagarriak diren heinean.
- b) IKESKak, Bezeroei lotuta eta kontratatutako zerbitzua ematen hasi aurretik, bezeroen sailkapenari buruz ezarritako betebeharrak, jarduera-programaren arabera aplikagarri zaizkienak, bete beharko ditu.
- c) Bezeroak une oro behar bezala informatuta mantentzea, modu inpartzial, argi eta ez-engainagarrian.
- d) Kudeaketa ordenatu eta zuhurra egitea, Bezeroen interesak zainduz. Ondorioz, IKESKak neurri hauek hartuko ditu:
 1. Interes-gatazken arriskuak saihesteko moduan antolatuko da eta, gatazkarik egonez gero, Tresnen eta Bezeroen interesak lehenetsiko ditu, bietako ezein pribilegiatu gabe. Haiekin lotutako interes-gatazka ororen berri emango da, horretarako ezarritako bitartekoen bidez.
 2. Jarduteko bitarteko egokiak edukitzea eta kudeaketa zuhurra bermatzeko eta indarreko araudiak ezarritako eginbehar eta betebeharrak ez betetzea saihesteko barneko kontrol aproposak ezarrita izatea. Horretarako, IKESKaren barne-kontrolerako politika eta prozeduren eskuliburua sortuko da.
 3. Tresnei eta Bezeroei buruz behar den informazio guztia daukatela ziurtatzea, IKESKarekin kontratatutako zerbitzuak emateko beharrezkoa denean.
 4. Tresnen eta Bezeroen tratu-berdintasuna bermatzea, inbertsioak edo desinbertsioak banatzerakoan bat ere lehenetsi gabe, haiek metatutako agindu gisa exekutatu badira. Helburu horretarako, ezarritako banaketa- eta esleipen-arauak hartuko dira kontuan.
 5. Ondasunen, eskubideen, baloreen edo tresnen transakzioak egitea merkatu-prezio eta -baldintzetan, eragiketak Tresna edo Bezeroentzat onuragarriagoak diren baldintzetan egiten badira izan ezik. Edozein kasutan, egoki diren neurri eta bitartekoak emango dira egindako transakzio bakoitza bere jatorriaren, parte hartzen duten alderdien, izaeraren eta ordu eta lekuaren arabera berregin ahal izan dadin.
 6. Edozein kasutan, balore-merkatuaren legeak, bere jarduera-eremuari eragiten dion IKE bakoitzaren osagai finkoaren berariazko araudia eta JBA honetan xedatutakoa sakonki ezagutu eta errespetatuko dira.
 7. Tresnen aktiboak informazio-liburuxka edo kontratuetan eta indarreko lege-xedapenetan adierazitakoari jarraiki inbertituko dira, bidegabeko kostuak saihesteko.



8. Bezeroekin kontratuak idatziz formalizatuko dira, alderdi bakoitzaren eskubide eta betebeharrak zehaztuz eta IKESKak zerbitzuak zein baldintzetan emango dituen adieraziz, eta kontratuok erregistratzearen eta zaintzearen gaineko ardura hartuko da

e) IKESK LABORAL kuxaren Etika eta Jokabide Profesionalaren Kodeari atxikita dago.

Ezein kasutan, IKESKak eta Pertsona eskudunek ezingo dituzte hauek egin:

- a) Kotizazioak artifizialki garatzeko helburua duten edo haiek artifizialki garatzea dakarten ekintzak burutu.
- b) Transakzioak biderkatu beharrezkoa ez denean eta Bezeroei onurarik ekarri gabe, edo bidegabeko gastuak sortu.
- c) Norberaren inbertsio-politikarekin bat datozeelako balore bat edo gehiago norberari esleitu, haiek Tresna edo Bezeroei esleitzea komeni denean.
- d) Norberaren baloreen salmenta lehenetsi, bezeroarenaren aurretik.
- e) Jarraipen Organoaren baimenik gabe IKESKan eskuratutako edo, orokorrean, hark bere onurarako zuzenean edo zeharka lortutako informazioa erabili edo hura hirugarrenei eman.



3 ERAGIKETA PERTSONALAK

3.1 Eragiketa pertsonalen definizioa

Eragiketa pertsonaltzat hartzen dira Pertsona eskudunek edo haien ordeztzat finantza-tresnekin egindako transakzioak, baldin eta honako baldintza hauek (aurrerantzean, "**Eragiketa pertsonalak**" edo "**Eragiketa pertsonala**") betetzen badira):

- a) Pertsona eskudunak IKESKak daukan betebeharrari dagozkion jardueretatik kanpo jardutea
- b) Transakzioa honako pertsona hauetako batek egitea:
 1. Pertsona eskudunak
 2. Pertsona eskudunekin ahaidetasun-harremana edo lotura estuak dituzten pertsonak. Horretarako:
 - i. Pertsona eskudunekin ahaidetasun-harremana duten pertsonaltzat joko dira honako hauek:
 1. Pertsona eskudunaren ezkontidea edo harekiko antzeko ahaidetasun-harremana duten pertsonak, indarreko legeen arabera.
 2. Pertsona eskudunaren ardurapeko seme-alaba edo seme-alabaordeak.
 3. Dagokion eragiketa pertsonalaren data baino gutxienez urtebete lehenagotik Pertsona eskudunarekin bizi diren ahaideak.
 - ii. Lotura estua duten pertsonaltzat joko dira honako hauek:
 1. Zuzenean, zeharka edo kontrol-lotura baten bidez, enpresa baten kapitalaren boto-eskubidearen % 20 edo gehiago daukaten pertsonak edo
 2. LMVSV-ko 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontrol-lotura bat duten pertsonak.
 3. Pertsona eskudunarekin daukan harremanaren izaragatik, eragiketaren emaitzarekiko zeharkako edo zuzeneko interes nabarmena duten pertsonak. Ez da interesik dagoenik ulertuko transakzioaren exekuzioaren ondoriozko ordainsariak edo komisioak kobratzeagatik.

Jarraipen Organoak eragiketa pertsonalen murriztapen berezien eta IKESKak eragiketa pertsonalei eta informazioa emateari lotuta dauzkan neurrien berri emango die Pertsona eskudunei, JBA honetan xedatutakoari jarraikiz.

3.2 Eragiketa pertsonalen komunikazioa

3.2.1 Jakinarazteko betebeharra eta baimena

Jarraipen Organoari jakinarazi beharko zaizkio Pertsona eskudunek egindako eta LMVSVko 2. artikuluan zerrendatutako finantza-tresnen salerosketa-eragiketa guztiak. JBA honetan salbuetsitako eragiketak kenduta, Pertsona eskudunek aurreko hilabetean egindako beste eragiketa guztien berri eman beharko da, haiek egin eta hilabeteko epean.



Eragiketarik egin ez bada edo balore zorroaren kudeaketaren ardura entitate bati eman bazaio, ez da informazioaren berri eman beharko.

Pertsona eskudunek LABORAL kutxaren bidez egin behar dituzte eragiketak eta, baimenik izan ezean, ezingo dituzte eskuratutako finantza-tresnak saio edo egun berean saldu. Halaber, orokorrean, ezingo dituzte egin kontrako posizioak dakartzaten eragiketak egun berean. Era berean, Pertsona eskudunek hamabost (15) eguneko epean balore beraren gainean kontrako eragiketa pertsonalak egiten badituzte, Araudia Betearazteko Departamentuaren arduradunari jakinarazi beharko diote.

IKESKak tresnen lotura bat izan dezakete eta Pertsona eskudunek ezingo dute haietan inbertitu Jarraipen Organoak horretarako alde zuzeneko baimena ematen ez badu. Pertsona eskudunak harreman horren jakitun izan behar dira.

Aurreko paragrafoan adierazitako baimenak eragiketa egiteko gehieneko epea adierazi beharko du. Eragiketa epe horretan egiten ez bada, beste baimen bat beharko da.

3.2.2 Salbuespenak

Ez da jakinarazteko betebeharra aplikatuko eta, beraz, Pertsona eskudunek honako eragiketa hauek egin ahal izango dituzte haien berri eman gabe:

- a) Inbertsio-zorroen kudeaketa diskrezionaleko eta indibidualizatuko kontratu baten testuinguruan egin diren eragiketak, zorroaren kudeatzailearen eta Pertsona eskudunaren edo eragiketa egiten duten beste pertsonen artean aurretiaz eragiketaren inguruko komunikaziorik egon ez bada.
- b) Europar Batasuneko Estatu Kide, Autonomia Erkidego, tokiko entitate edo Espainia kide den nazioarteko erakunde batek jaulkitako baloreak erosi edo besterentzeko helburua duten eragiketa pertsonalak.

Jarraipen Organoak hala eskatzen badu, Pertsona eskudunek eragiketa pertsonal guztien berri eman beharko dute, salbuetsitakoak barne, xehetasun osoz eta, hala eskatuz gero, idatziz.

3.3 Eragiketa debekatuak

Erabat debekatuta dago Pertsona eskudunek eragiketa pertsonalak egitea honako egoera hauetan:

- i. Pertsona eskudunak eragiketa hori egitea debekatuta badauka, informazio pribilegiatua erabiltzea edo zabaltzea edo prezioen eraketa librea faltsutzea ekartzen duelako.
- ii. Eragiketak isilpeko informazioa bidegabe erabiltzea edo zabaltzea ekartzen badu.
- iii. Eragiketa IKESKaren betebeharrekin gatazkan badago edo jar badaiteke, indarreko legedian eta IKESKaren Interes-gatazken Politikan xedatutakoari jarraikiz.

Halaber, erabat debekatuta dago ohiko eginbeharretatik edo, hala badagokio, zerbitzu-kontratutik kanpo beste pertsona bati aholku edo laguntza ematea tresnekin transakzio bat egin dezan. Pertsona eskudunaren eragiketa pertsonal bat bada, aurreko atalean xedatutakoan barne hartuko da.

Erabat debekatutako dago Pertsona eskudunak beste edozein pertsonari informazioa edo iritziak helaraztea, ohiko zereginen edo zerbitzu-kontratuaren baitan egin ezean,



Pertsona eskudunak baldin badaki edo pentsa badezake hark informazio horrekin honako eragiketa hauek egin ditzakeela:

- Finantza-tresnetan eragiketak egitea. Pertsona eskudunaren eragiketa pertsonal bat izango balitz, aurreko 1. atalean xedatutako debekuek ukituko lukete.
- Beste pertsona bati eragiketa hori egiten aholkatzea edo laguntzea

IKESKak eta "Pertsona eskudunek" ezingo dituzte balio bereko eragiketa pertsonalak egin saio edo egun berean, Jarraipen Organoak horretarako berariazko baimena ematen duenean edo behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik.



4 **MERKATU-ABUSUA**

4.1 Informazio pribilegiatua

596/2014 Araudian xedatutakoari jarraikiz, informazio pribilegiatutzat joko dira informazio mota hauek guztiak:

- a) publiko egin ez den izaera konkretuko informazioa, jaulkitzaile edo finantza-tresna bati edo gehiagori zuzenean edo zeharka lotuta badago eta, publiko eginez gero, tresna horien edo haiekin lotutako tresna eratorrien prezioari nabarmenki eragiten badio;
- b) lehengaiei buruzko tresna deribatuekin lotuta, publiko egin ez den eta tresna deribatu horietako bat edo gehiago zuzenean edo zeharka aipatzen dituen informazio zehatza edo haiekin lotutako lehengaiei eskurako kontratu bat zuzenean aipatzen duena, zeinak, publiko eginez gero, tresna deribatu horien edo haiekin erlazionatutako lehengaiei buruzko eskurako kontratuen prezioetan nabarmenki eragin baitezakeen. Informazioa zentzuz publiko egitea espero bada edo publiko egin behar bada, Batasunaren edo herrialdeko lege- edo erregelamendu-xedapenei, merkatuko arauai, kontratuei eta lehengaiei buruzko merkatu deribatuei edo eskurakoei dagozkien erabilera eta jardunbideei jarraikiz egingo da;
- c) jaulkipen-eskubideei edo eskubide horietan oinarritutako enkanteko produktuekin lotuta, publiko egin ez den izaera konkretuko informazioa, finantza-tresna bati edo gehiagori zuzenean edo zeharka lotuta badago eta, publiko eginez gero, tresna horien edo haiekin lotutako finantza-tresna deribatuen prezioari nabarmenki eragiten badio;
- d) bezero batek edo bere izenean jarduten dutenek transmititutako informazioa edo kontu propio baten edo kudeatutako funts baten kudeaketari jarraikiz jasotakoa, finantza-tresnei dagozkien zain dauden aginduekin lotuta, izaera konkretukoa dena, jaulkitzaile edo finantza-tresna bati edo gehiagori zuzenean edo zeharka lotuta badago eta, publiko eginez gero, tresna horien edo haiekin lotutako tresna eratorrien prezioari, lehengaiei buruzko eskurako kontratuen prezioei edo haiekin lotutako finantza-tresna eratorrien prezioei nabarmenki eragiten badie.

Informazio pribilegiatua duten Pertsona Eskudunek eta IKESKak ezingo dute euren kontura edo beste norbaiten izenean, zuzenean edo zeharka, honako hauetakorik egin:

- a) Eragiketak egin edo egiten saiatu aurreko atalean adierazi diren, informazioan aipatzen diren edo bestelako balore negoziagarrietan edo finantza-tresnetan edo bestelako edozein balore, finantza-tresna edo kontratutan, bigarren mailako merkaturan negoziatu badira edo ez eta informazioan aipatzen diren balore negoziagarriak edo finantza-tresnak azpian baditu.
- b) Informazio hori hirugarrenei helarazi, bere lanpostuan edo karguan jardun bitartean izan ezik.
- c) Hirugarrenei balore negoziagarriak edo finantza-tresnak erosteko edo lagatzeko gomendatu edo, informazio horretan oinarrituta, beste norbait hori egitera bultzatu.

Aurreko debekuak Pertsona eskudun eta IKESK orori aplikatzen zaizkie, baldin eta informazio pribilegiatua badaukate eta horren jakitun badira edo izan beharko balukete.



4.2 Merkatuaren manipulazioa

IKESKak eta Pertsona eskudunek ez dute legez merkatua manipulatzeari dagokien eragiketarik egingo. Horren ondorioetarako, honako eragiketa hauek hartuko dira merkatuaren manipulazio gisa:

- a) Eskaintzari, eskariari, balore negoziagarrien prezioari edo finantza-tresnei dagokienez, zantzu faltsu edo engainagarriak ematen dituzten edo eman ditzaketen eragiketak edo aginduak. Halaber, pertsona baten edo elkarrekin jarduten duen pertsona talde baten bidez, finantza-tresna baten edo gehiagoren prezioa ezohiko maila edo maila artifizial batean bermatzen dutenak, eragiketak egin dituen edo aginduak eman dituen pertsonak bere arrazoien legimititatea eta haiek erregulatutako merkatuan onartutako praktiketara egokitzen direla frogatzen badu izan ezik.
- b) Fikziozko gailuak edo bestelako iruzur edo trikimailuak erabiltzen dituzten eragiketa edo aginduak.
- c) Hedabideen edo bestelako bitartekoen bidez, Internet barne, balore negoziagarriei edo finantza-tresnei buruzko zantzu faltsu edo engainagarriak ematen dituen edo eman ditzakeen informazioa zabaltzea, zurrumurruak eta albiste faltsu edo iruzurrezkoak zabaltzea barne, haiek zabaltzen dituen pertsonak informazioa faltsua edo iruzurrezkoa dela badaki edo jakin beharko balu.
- d) Informazio faltsua edo engainagarria transmititzea edo erreferentzia-indize batekin lotutako datu faltsuak ematea, haiek eman dituen pertsonak faltsuak edo engainagarriak direla badaki edo jakin beharko balu, edo erreferentzia-indize baten kalkulua manipulatzeari dagokien beste edozein jokabide izatea.

Merkatuaren manipulazio gisa hartuko dira honako jokabide hauek:

- a) Pertsona batek edo gehiagok hitzarmenez jardutea, balore edo finantza-tresna baten eskaintzaren edo eskariaren gaineko botere-posizio bat lortzeko, erosketa- edo salmenta-prezioak edo negoziazio-ko bestelako baldintza ez-erabilerak finkatzea badakar.
- b) Merkatua ireki edo ixterakoan finantza-tresnak erosi edo saltzea, baldin eta erakutsitako kotizazioetan oinarrituta, irekiera- edo itxiera-komisioak barne, jarduten duten inbertsoreak nahastea edo engainatzea badakar edo ekar badezake.
- c) Aginduak negoziazio-zentro batean egitea, haiek ezeztatze edo aldatzeko aginduak barne, erabilgarri dauden negozio-metodoetako bat erabiliz, bitarteko elektronikoak, negoziazio algoritmikoko estrategiak eta frekuentzia altukoak barne, baldin eta:
 - i. negoziazio-zentroan erabilitako negoziazio-mekanismoaren funtzionamendua eteten edo atzeratzen badute edo hori gertatzeko aukerak areagotzen badituzte;
 - ii. beste pertsona batzuei negoziazio-zentroko negoziazio-mekanismoetan benetako aginduak identifikatzea oztopatzea edo oztopatzeko aukera areagotzen badiete, bereziki aginduen txartela gainkargatzea edo desorekatzea eragiten duten aginduak sartuz edo
 - iii. eskaintza eta eskaerari edo finantza-tresna baten prezioari buruzko zantzu faltsu edo engainagarri bat sortzen badute edo sortu ahal badezakete, bereziki, joera bat hasteko edo areagotzeko aginduak bidaliz.



- d) Hedabide tradizional edo elektronikoetarako aldizkako edo ohiko sarbideaz baliatzen badira, balore edo finantza-tresna bati edo, zeharka, bere igorleari buruzko iritzia adieraziz, balore edo finantza-tresna horrekiko iritzia eman ondoren eta, ondorioz, balore edo finantza-tresna horren prezioaren inguruan adierazitakoen ondorioei etekina atera ondoren, aldi berean iritzi publikoari interes-gatazka horren berri modu egoki eta eraginkorrean eman gabe.
- e) 1031/2010 Araudian (EB) aurreikusitako enkantea baino lehen, bigarren mailako merkatuan jaulkipen-eskubideak edo haiekin lotutako tresna deribatuak erosi edo saltzea, horren ondorioz enkantean jarritako produktuen esleipen-prezioa ezohiko moduan edo irregularki ezartzen badira edo enkanteetan eskaintzaileak nahastu edo engainatzen badira.



5 INTERES-GATAZKAK

LABORAL kuxak Interes-gatazkak Detektatzeko eta Kudeatzeko Politika bat dauka. Haren helburua da interes-gatazka errealak edo potentzialak etengabe identifikatu eta eguneratzea, haiek ahalik eta gehien murriztea eta egoera horiek gertatzea saihestea. Halaber, hori egin ezin bada, haiek detektatu, kudeatu, kontrolatu eta murriztea eta, hala badagokio, interes-gatazka horiek bezeroei jakinaraztea, Inbertsio Kolektiboko Erakundeen interesak eta haien partaideenak kaltetu ez daitezen eta kudeatutako IKE-ek tratatu parekidea jasotzen dutela berma dadin, indarreko araudian xedatutakoari jarraikiz.

Politika honetan adierazten dira, besteak beste, interes-gatazken definizio eta printzipio orokorrak, haiek detektatzeko, saihesteko, kudeatzeko eta ebazteko prozedurak, gatazken erregistroak eta komunikazio-sistemak, politika onartu, zabaldu eta kontrolatzearen arduradunak eta interes-gatazka potentzialen erregistroa.



6 LOTUTAKO ERAGIKETAK

6.1 Pertsona eskudunen eta tresna edo bezeroen arteko lotura

Pertsona eskudunek ematen zaien ereduarekin (l. eranskina) bat datorren adierazpen bat egingo dute IKESKaren aurrean eta hura eguneratuta mantenduko dute. Adierazpen horretan, balore-merkatuarekin lotutako zerbitzuen edo Burtsan kotizatutako sozietateak direla eta tresna edo bezeroekin dituzten lotura aipagarriak, ekonomikoak, familia-loturak edo bestelakoak adieraziko dira.

Edozein kasutan, lotura ekonomikotzat joko da Pertsona eskudunaren partaidetzaren titulartasuna, baldin eta hura kapitalaren % 5 baino handiagoa bada tresnen kasuan eta kapitalaren % 1ekoa Burtsan kotizatutako nazioarteko edo atzerriko sozietateen kasuan.

Era berean, aurreko 3.1. b), atalean adierazitako ahaidetasun-harremanak ere familia-loturatzat joko dira, 2) Bezeroekin edo bezero diren sozietateetan edo Burtsan kotizatzen duten sozietateetan administrazio- edo zuzendaritza-kargua duten pertsonekin.

Adierazpenak, halaber, barne hartuko ditu kanpoko behatzaile zintzo baten arabera Pertsona eskudunaren jardunbide inpartziala arriskuan jar ditzaketen bestelako loturak. Horren inguruko arrazoizko zalantzarik izanez gero, Pertsona eskudunek Jarraipen Organoari kontsultatu beharko diote.

Atal honetan ezarritako adierazpena aldatzen bada, Pertsona eskudunak adierazpen berri bat aurkeztu beharko du aldaketa egin aurretik, aldaketak ustekabeko arrazoiengatik edo Pertsona eskudunaren ez diren arrazoiengatik egiten badira izan ezik. Kasu horretan, Pertsona eskudunak egoera ezagutu ondorengo hamar (10) egunetan eman beharko du haren berri.

6.2 Tipologia

Lotutako eragiketatzat joko dira (aurrerantzean, "**Lotutako eragiketak**"):

- a) IKE edo bezero bati zerbitzuak emateagatik IKESKak ordainsariak jasotzea, baldin eta IKESKak hartutako eginkizunen ezinbesteko ondorio ez badira.
- b) IKE batek finantzaketa edo gordailuen eraketa lortzea.
- c) IKE batek atal honetan definitutako lotutako pertsona batek jaulkitako edo abala emandako edo hark merkaturatzaile, aseguratzailer, zuzendari edo aholkulari gisa jardun dueneko balore edo tresna bat erostea.
- d) Baloreen salerosketa.
- e) IKE-en, IKESKaren eta, hala badagokio, entitate gordailuzainaren eta haietan administrazio-edo zuzendaritza-lanak egiten dituzten pertsonen arteko baliabide, betebeharrak edo aukeren transferentzia edo trukea.
- f) IKE batek eta LABORAL kuxako edo entitate gordailuzaineko enpresa, haietako administrazio kontseiluetako kide edo IKESKak edo bere taldeko IKESK batek kudeatutako tresna batek parte hartzen duten negozio, transakzio edo zerbitzu-prestazio guztiak.

Aurreko eragiketak lotutako eragiketatzat hartuko dira, gutxienez honako bi alderdi hauen artean egiten badira:

- a) Entitatea.
- b) IKE-ko entitate gordailuzaina (aurrerantzean, "**Gordailuzaina**").



- c) Entitatean edo gordailuzainean administrazio- eta zuzendaritza-lanak egiten dituzten pertsonak.
- d) Entitatearen edo gordailuzainaren taldeko enpresak eta entitate horietan administrazio- eta zuzendaritza-lanak egiten dituztenak.
- e) Kudeatutako IKE-etako kideak edo partaideak, baldin eta partaidetza esanguratsuak badituzte.
- f) Entitateak kudeatutako bestelako IKE-ak.
- g) Entitatearekin kontrol-lotura bat daukaten langileak, pertsona eskudunak edo bestelako pertsonak. RIICko 144.1.b artikulua araberako interes-gatazkak daudenez, IKE-ekin egindako eragiketa guztiak (bai zuzenekoak, bai bitarteko sozietateen bidez egindakoak) lotutako eragiketatzat joko dira.
- h) Bezeroak.

Aurrerantzean, aipatutako pertsonen "Pertsona eskudunak" deituko diegu kolektiboki eta banaka, berriz, "Pertsona eskuduna".

Bitarteko pertsonen edo entitateen bidez egiten diren eragiketak ere lotutako eragiketatzat joko dira. Ondore horietarako, eragiketa bitarteko pertsonen edo entitateen bidez egiten dela ulertuko da baldin eta hura odoleko ahaide zuzen edo zehar-ahaide batek, laugarren maila arteko ahaidetasun-harremana duen pertsona batek, agintariek edo fiduziarioek edo zuzenean edo zeharka kapitalaren % 25 edo gehiago administrazio- eta zuzendaritza-karguarenak diren entitateek edo bertan administrazio- edo zuzendaritza-lanak egiten dituztenek egiten badute.

6.3 Baimena

6.3.1 Baimenari lotutako eragiketak

Honako hauek dira baimendu beharreko lotutako eragiketak:

- a) Pertsona eskudunek merkaturatzaile, aseguratzailer, zuzendari edo aholkulari gisa jarduten duten baloreen erosketa.
- b) Pertsona eskudunek bidali dituzten edo abala eman dieten baloreen erosketa, bai lehenengo mailako merkaturatze, bai bigarren mailakoan.
- c) Pertsona eskudunak diren aurkako alderdiei errenta finkoko baloreak salerostea.
- d) Pertsona eskudunek kudeatutako IKE-ak salerostea.
- e) Pertsona eskudunekin merkatuz kanpoko aldebiko eragiketak (OTC) eta produktu egituratuak kontratatzea eta aktiboak aldi baterako erosi edo lagatzea.
- f) Pertsona eskudunekin gordailuak kontratatzea, epea eta zenbatekoa edozein izanik ere.
- g) Kudeatzaile bereko IKE baten edo IKE baten eta kudeatzailearen zorroen kudeaketa diskrezionalen beste bezero baten arteko aplikazioak.
- h) IKE-ek IKESKarek eta Pertsona eskudunen artean egiten dituen kontratuak, zerbitzuak emateari edo finantza-tresna edo aktiboak lotutakoak, baita IKE-ek osorik edo partzialki ordaintzen dituenak ere.



6.3.2 Baimenari lotuta ez dauden eragiketak

Lotutako eragiketak izan arren, honako eragiketa hauek ez dute Jarraipen Organoaren aldez aurreko baimena beharko, baina egiaztatu egin beharko dira haiek egin ondoren:

- a) Bezero batek IKESKarekin edo, hala badagokio, gordailuzainarekin egindako eragiketak, entitate horiek onartutako funtzioen nahitaezko ondorio direnak.
- b) Akziodunen Batzar Nagusiak edo bere ordezkariak, edo Administrazio Kontseiluak edo bezeroaren erakunde baliokideak 6. atal honetan adierazitako eragiketa jakin batzuk egiteko baimena eman badu. Eragiketa horiek ondoren berrikusiko dira, baimendutako zehaztapenen arabera egin direla egiaztatzeko
- c) Bezeroaren akzioak edo partaidetzak erosi edo saltzea.
- d) Garrantzia gutxi duten edo errepikakorrek diren eragiketak, Administrazio Kontseiluak edo Jarraipen Organoak azken honen baimenik gabe egin daitezkeela adierazten badu. Jarraipen Organoak dagozkion kontrolak egingo ditu ondoren, Prozeduren Eskuliburuan ezarritako aldizkakotasunarekin.

6.3.3 Administrazio Kontseiluaren baimena

IKESKarekin eta bertan administrazio- edo zuzendaritza-kargua duten pertsonen artean egiten diren lotutako eragiketak, IKESKarentzat edo bezeroentzat bolumen nabarmeneko negozioak badira, IKESKako Administrazio Kontseiluak onartu beharko ditu, honako arau hauen arabera:

- a) Eragiketa behar bezain argi sartu beharko da gai-zerrendan.
- b) Indarreko araudian edo JBA honetan xedatutakoaren arabera, Administrazio Kontseiluko kideren bat lotutako alderditzat jotzen bada, bozketatik kanpo geratuko da.
- c) Bozketa isilpekoa izango da.
- d) Kontseilarien bi herenek ados egon beharko dute erabakiarekin, aurreko b) atalean adierazitakoaren arabera abstenitzen diren kontseilariak izan ezik.
- e) Bozketa egin eta emaitza adierazi ondoren, kontseilariak hartutako erabakiarekiko dituzten erreserba edo desadostasunak gai-zerrendan jasota utzi ahal izango dira.

6.3.4 Jarraipen Organoaren baimena

Lotutako eragiketari dagokion baimena idatziz eta aldez aurretik eskatu beharko da eta eragiketaren identifikazio-datu guztiak adierazi beharko dira, bereziki, bezeroa, eragiketa mota eta horren baldintzak. Jarraipen Organoak informazio gehiago behar badu, hala eskatu ahal izango du.

Jarraipen Organoak lotutako eragiketa bat baimendu dezan, beharrezkoa izango da, edozein kasutan, hura eragindako bezeroaren onurarako soilik egitea merkatuko prezio edo baldintza berdinetan edo hobeetan; bi eskakizunak beteta ere, Jarraipen Organoak eragiketa eginez gero balore-merkatuaren jokabide-arauak urratzen direla uste badu, hura onartzea ukatuko du. Baimena eskuz jaso beharko da eta hura lortzeko aurkeztutako dokumentazioarekin batera artxibatuko da.

IKESKak interes-gatazkak saihesteko prozeduraren eta lotutako eragiketen berri eman beharko die bezeroei, argitaratzen dituzten liburuxka eta aldizkako informazioaren bidez eta indarreko legeak xedatutakoaren arabera.



7 GORDAILUZAINAREKIKO BANAKETA-ARAUAK

1. Kudeatutako IKE baten entitate gordailuzain bat, LMVSVko 4. artikuluan ezarritakoaren arabera, IKESKaren talde ekonomiko berari badagokio, IKESK eta entitate gordailuzaina nahitaez bereizten direla bermatzeko neurriak hartuko dira, besteak beste:

- a) Kontseilari edo administratzaile komunik ez egotea.
- b) Bi entitateek zuzendari desberdinak izatea.
- c) Egoitza sozial desberdina izatea eta bulegoak eta jarduera-guneak fisikoki bereizita egotea.
- d) Kudeaketa- eta gordailuzaintza-jardueretara bideratutako giza baliabideak eta baliabide materialak fisikoki bereizita egotea eta jarduera baten eta bestearen arduradunen artean interes-gatazkak sor ditzakeen informazioa transferitzea saihesten duten tresna informatikoak edukitzea.
- e) Hala badagokio, neurriak hartzea haien jardueretatik eratorritako informazioa beste entitateko langileen eskura –denboraren ikuspegitik, zuzenean edo zeharka– ez dagoela bermatzeko. Dagozkien funtzioak modu autonomoan egingo dira, indarreko araudiak hala eskatzen badu izan ezik.
- f) IKESK kide den entitate-taldearen eta erakunde gordailuzainaren eta Bezeroen arteko interes-gatazkak prebenitzeko arauak egongo dira eta, horiek pertsona juridikoak badira, haien bazkideen eta partaideen artekoak prebenitzekoak.
- g) Langileek balore-merkatuan egiten dituzten eragiketa pertsonaletarako barneko erregimen bat egotea, baita hura betetzen dela ziurtatzeko neurriak ere.

2. JBAko Jarraipen Organoari dagokio aurreko neurriak betetzen diren egiaztatzea.



8 JARRAIPEN-ORGANOAK

IKESKako Zuzendaritza Kontseiluak Jarraipen Organo bat sortuko du JBA honetarako. Bereziki, JBAko Jarraipen Organoa pertsona bakarrek osatuko du; hain zuzen, Araudia Betearazteko Departamentuaren arduradunak.

Organo horren ardura izango da, esleitzen zaizkion bestelako funtzioak alde batera utzita, JBA betetzen dela bermatzea. Horretarako, jasotzen dituen dokumentu eta jakinarazpenak jaso, aztertu eta, hala badagokio, izapidetuko ditu bertan edo legedia aplikagarrian xedatutakoari jarraikiz.

Organo horretako kideek hura isilpean gordetzeko betebeharra izango dute. Konfidentzialtasuna gordetzeko betebeharrak IKESKako Administrazio Kontseiluko kideei ere eragingo die Jarraipen Organoak bidaltzen dizkion jakinarazpenei lotuta, baldin eta JBA hau urratzen ez badute.

Jarraipen Organoak gutxienez hiru hilabeteen behin emango dio Administrazio Kontseiluari egindako lotutako eragiketen eta interes-gatazken berri; hiruhilekoren batean lotutako eragiketarik edo interes-gatazkekin lotutako aferarik egongo ez balitz, epe horretan eragiketarik egin ez dela adierazten duen txosten bat bidaliko da. Urtero, gordailuzainarekiko banaketa-arauak betearaztearen berri emango dio Administrazio Kontseiluari.

Era berean, Jarraipen Organoak JBA honetan hautematen dituen urratzeen berri emango dio Administrazio Kontseiluari eta hura hobetzeko edo hobeto betetzeko beharrezkotzat jotzen dituen neurriak proposatuko dizkio.

Jarraipen Organoak behar diren erregistroak egingo ditu, JBA honetan xedatutakoari jarraikiz, jasota gera dadin IKESKak eta Pertsona eskudunek euren betebeharrak betetzen dituztela. Halaber, Jarraipen Organoaren esku-hartzeak jasoko dira. Erregistroan honako puntu hauek jasoaraziko dira, gutxienez:

- a) Pertsona eskudunen harremanak.
- b) Pertsona eskudunek Araudia ezagutzen dutela aitortzeko sinatutako ezagutza-deklarazioak.
- c) Bezeroekin sinatutako kontratuak.
- d) Eragiketa partikularren eta ezarritako neurrien mugei buruzko informazioa.
- e) Hileroko eragiketa pertsonalei buruzko komunikazioak.
- f) Pertsona eskudunek inbertitu ezin duten tresnen loturak.
- g) Pertsona eskudunek eragiketa pertsonalak egitea ahalbidetzen dieten zorroen kudeaketa-kontratuak.
- h) Pertsona eskudunei saio edo egun berean balio bereko eragiketa pertsonalak egiteko eman zaizkien baimenak.
- i) Interes-gatazken (eta interes-gatazken eguneraketa-konpromisoen) adierazpenak.
- j) Jarraipen Organoaren hiru hilez behingo txostenak.
- k) Jarraipen Organoak lotutako eragiketarako aurretik emandako baimenak



I. eranskina - LOTURA NABARMENEN ADIERAZPENA

Arrasaten, 202...(e)koren (e)an

....., NAN zenbakidunak, Caja Laboral Gestión SGIIC S.A.-ren
Balore-merkatuaren arloko Jokabidearen Barne Araudiko subjektu behartu gisa

ADIERAZTEN DU

Caja Laboral Gestión SGIIC S.A.-ren Balore-merkatuaren arloko Jokabidearen Barne Araudia, 2025eko uztailaren 22koa, eskuragarri daukala eta ezagutzen duela.

Aipatutako Araudiari jarraikiz, subjektu behartu gisa bete behar duen betebeharretak bat baloreen eragiketa guztiak LABORAL kuxaren egitea dela, Zor Publikoko balioetako inbertsioak salbu. Subjektu behartuak hileroko egindako eragiketen berri eman beharko dio LABORAL kuxari, hurrengo hileko lehen 10 egunen barruan.

Aipatutako Araudiaren arabera, Caja Laboral Gestión-en betebeharra dela merkatu-abusua izan daitekeen jokabidea egitea eragozteko eta entitateak balore-merkatuaren arloan egiten dituen jarduerak eta zerbitzuekin lotutako interes-gatazkak konpontzea. Horretarako, beharrezkoa izango da subjektu behartuekin lotutako pertsonak eta sozietateak egindako balore-eragiketak identifikatzea.

Eta adierazitako betebeharrak betetzen laguntzeko, lotutako perimetroari dagozkion honako pertsona hauek identifikatzen ditu

Sinatuta:



SUBJEKTU BEHARTUAREN IZENA:	NAN:	Helbidea:
------------------------------------	------	-----------

Zuzeneko ahaideen informazioa		
Ahaidetasuna	Izena	NANa (*)
Ezkontidea (**)		
Aita		
Ama		
Seme-alabak		
Bilobak		
Aitona-amonak		
Anai-arrebak		
Kargupeko pertsonak (***)		

(*) NANik gabeko adingabeen kasuan, adierazi jaiotze-data

(**) Izatezko bikote bat eratu den edo antzeko ahaidetasun-harremana duen ezkontidearekiko erreferentziak. (***) Ez sartu aurreko puntuetan.

Beste pertsona interesgarri batzuk	
NAN	Izena

Dataren informazioa: Sinatuta:



SUBJEKTU BEHARTUAREN IZENA	NAN:	Helbidea:
-----------------------------------	-------------	------------------

	Sozietate partaidetuak (*)						
Lotutako pertsona (**)	Enpresa	Karguak	IFZ	% kapital- partaidetza	Kontrol- partaidetza (***)	Alta- data	Baja- data

(**) Bete koadro hau soilik subjektu behartuak edo zuzeneko senideen koadroan sartutako pertsonen sozietate batean boto-eskubideen edo kapital sozialaren % 20ko edo gehiagoko partaidetza badute, hirugarrenekin egindako hitzarmenaren arabera boto-eskubideen gehiengoak badute edo administrazio organoko kideak izendatzeko edo kargugabetzeko gaitasuna badaukate.

(**) Subjektu behartuaren izena edo partaidetza daukan senidearen izena adieraziko da.

(***) Erantzun BAI edo EZ. Merkataritza Kodearen kontrolaren definizioa aplikatuko da. Haren arabera, BAI erantzun beharko da, kapitalaren partaidetza edozein izanik ere, ekarpenaren titularrak zuzenean edo zeharka boto-eskubideen gehiengoak badauka (edo eduki ahal baditu, beste batzuekin egindako hitzarmenaren arabera) edo bere botoekin administrazio organoko kideen gehiengoak izendatu badu edo administrazio organoko gehiengoak izendatu edo kargugabetzeko gaitasuna badauka

Talde bateko sozietate menderatzaile diren partaidetzako sozietateak (****)				
Sozietate menderatzailea	Partaidetzako sozietatea	IFZ Partaidetzako sozietatea	% partaidetza	Kontrol- partaidetza (***)

(****) Bete koadro hau soilik aurreko koadroan sartutako sozietateren bat Talde bateko sozietate menderatzailea bada.

Dataren informazioa: Sinatuta:



II. eranskina - EROSKETA ETA SALMENTEN HILEROKO JAKINARAZPENA

CAJA LABORAL GESTION SGIIC S.A.-ko JBAko Jarraipen Organoa

Arrasate 202x XXXXX

Kide agurgarria:

Dakizunez, Caja Laboral Gestión SGIIC, S.A.-k balore-merkatuaren arloko Jokabidearen Barne Araudi (JBA) bat dauka indarrean. Kontsultatzeko eskuragarri daukazu.

Caja Laboral Gestiónen JBAk, Araudiko subjektu behartuek aurreko hilean beraiek edo loturiko pertsona edo sozietateek egindako eragiketa pertsonalen berri emateko betebeharrari egiten dio erreferentzia.

Sinatu duzun adierazpenaren baldintzei jarraikiz informazio hori jakinarazteko betebeharra betetzen lagun diezazugun, hilabeteen egindako eragiketak zerrendatu ditugu. Eragiketarik falta bada, gehitu zerrendan, mesedez.

Subjektu behartuaren IFZ :

Subjektu behartuari lotutako pertsonaren IFZ :

Fecha/Data		Nombre Título/Tituluaren izena	Núm./Zenb.	Cambio/Trukea

Reiterándote como en anteriores ocasiones que la información que nos remitas será tratada con absoluta confidencialidad, me pongo a tu disposición para cualquier consulta que precises.

Aurreko aldietan bezala, zuk bidalitako informazioaren tratamendua zeharo konfidentziala izango dela gogorarazten dizut. Beraz, zure esanera naukazu, edozein galdera argitzeko prest.

Estoy conforme con los movimientos de valores que figuran en el presente documento.

Ados nago dokumentu honetan azaltzen diren balio mugimenduekin.

Firma/Sinadura:

Sin otro particular, recibe un cordial saludo. / Besterik gabe, har ezazu nire agurrik beroena.